

B

BARREN

TOKIKOM



Irudimena bidelagun

Mikel Cornejo

230.000 €tik aurrera
garajea eta trastelekua barne

Urte amaiera arte
bigarren garajea doan
3 logelako etxebizitza
erosteagatik!!!!



- Etxebizitza BERRIAK
- Banco Guipuzcoanok finantzaturako obra
- Berahala eskuratzeko aukera
- Egungo etxebizitza saltzeko helburuarekin erosketa geroratzeko aukera
- Bi etxebizitza-eredu bisitatzeko aukera
- Horma-armairu eta guztiz hornitutako sukaldearekin



Santa Klara kalea, 32 C - Behe solairua B

Tel. 943 74 44 67

ELGOIBAR

Gure Bidek 50 urte bete ditu

Hasieran interesgarrienak iruditzen zitzaizkigun datuak jasotzen hasi ginen, baina berehala konturatu ginen aktak labor jaso zituztenak ere egon ziren arren, hartutako erabaki guztiak, antolatutako txirrindularitza lasterketa ezberdinetako gertaerak nahiz laguntzak, zehatz-mehatz gorde zituzten idazkariak egon zirela. Hurrengo pausoa 50 urteetan zehar lehendakari izandakoen zerrenda egitea izan zen, eta baita zuzendaritza taldeetan, kargu ezberdinekin, parte hartu zuten guztiena ere. Material honekin guztiarekin liburua bi zatitan bereiztea erabaki genuen; lehenengoak elkarte bera izango du aztergai, hartutako erabakiak, jasotako laguntzak...; bigarrenak 1947an sortutako Etxaniz Memorialaren berri emango du, hasi zenetik antolaketaren eta emaitzen ahalik eta informaziorik zehatzena emanez. Lehenengo zatia egiteko ez da arazorik izan, bazkideekin hainbat elkarriketa egin ditugulako. Haatik, bigarren zatia aurrera atera ahal izateko, aktetan genuena ez da nahikoa izan, eta elkartean bertan genituen dokumentuak aztertzeari ekin behar izan diogu. Hala ere, datu gehiagoren premiak bultzatuta, egunkariak ere aztertu ditugu Koldo Mitxelena liburutegian, eta bertako hemeroteca digitala ere erabili dugu. Donostiako eta Elgoibarko Udal liburutegiko hemeroteca ere arakatu dugu informazio bila, eta datu gehiagoren jabe izateko

helburuarekin Gipuzkoako Txirrindularitza Elkargora ere jo dugu. Elgoibarko Udalaren Kultura Sailak lagatako jaietako aldizkariak ere lagungarri izan zaizkigu. Azkenik, irabazleen podium bat sortu dugu, Elgoibarko Klub Deportiboak antolatu zituen urte batzuetako lehenengo hiru sailkatuak, eta baita Gure Bide Txirrindulari Elkarteak 50 urtean zehar egindakoetakoak ere.

Koldo Lizarralde eta
Laurentzi Gorostiza



“Liburuaren bigarren zatia 1947an sortutako Etxaniz Memorialaren berri emango du, antolaketaren eta emaitzen ahalik eta informaziorik zehatzena emanez”



**Ni ere banaiz
BARREN!**

Zergatik babesten duzu BARREN?

BEÑAT URAIN

“Elgoibarko eta Mendaroko albisteak euskaraz irakurtzeko aukera eskaintzen didalako”



MIKEL CORNEJO

MUSIKARIA

“Entzutea
gustatzen
zaidan musika
egiten dut”

C69 izen artistikoaren atzean, *Datozen Egunak* izeneko diskoa jarri du Mikel Cornejok Interneten. Ordenagailuarekin sortzen du musika, eta modu horretan eginiko bosgarren diskoa da hau. 16 abesti bildu ditu, eta horrez gain, Carlos Jean musikariak sustatutako “El plan B” lehiaketan parte hartzeko beste abesti bat ere egin du. Aurre aukeraketa gainditu ostean, beste abesti mordo batekin lehian dago elgoibartarraren abestia. www.elplanb.tv webgunean eman daitezke botoak. Teknologia berrieekin musika mundua aldatzen ari dela dio Cornejok, eta horri ezin zaiola kontra egin uste du, gainera. Cornejoren iritziz, teknologia berriek eskaintzen duten aukerak aprobetxatu egin behar dira.



Ordenagailuz ekoiztutako disko berria jarri duzu sarean. Noiz eta nola hasi zinen lan horretan?

Poliki-poliki sartu naiz, ia konturatu gabe. Orain dela bi urtera arte ez neukan Internetarako konexiorik, eta ekoizten nuen musika CDan grabatzen nuen. Tabernan lan egiten nuela aprobetxatzen nuen nire abestiak jartzeko eta entzuteko. Dagoeneko bosgarren lana jarri dut sarean, denek entzuteko. Pozik

geratu naiz emaitzarekin, eta entzun duen jendeak ere esan dit gustatu zaiola, baina nire ustez, post-produkzioa hobetzea falta zait. Soinu berrien bila aritu naiz, baina amaierako soinu garbitasuna lortzea falta zait. Batzuk esan didatenez modu analogikoak horretarako aukera handiagoa eskaintzen du digitalak baino.

Zergatik erabaki duzu diskoa sarean jartzea CDa grabatu eta kaleratu ordez?

CD formatoa bera zaharkituta geratu da, eta nire ustez ez du ezertarako balio. Gusturoa-go erosiko nuke disko bat pendrive formatuan, bere *merchandising* guztiarekin. Azken batean, pendrive hori berriro erabili daiteke, autoan ere entzun daiteke. Musikaren formatoa aldatzen ari da. Japonian, esate baterako, holograma bat sortu dute. Irudi birtual bat da, kontzertuak eskaintzen dituena, eta sekulako arrakasta dauka. Nire ustez, musika-

tik dirua ateratzeko kontzertuak eman behar dira, hau da, musikari batek lana egin behar du dirua irabazteko. SGAEren politikaren kontra nago erabat, eta SGAE hitza entzutearekin bakarrik sutan jartzen naiz. Kultura ezin da hori izan. Nik sarean jarri dut jendeak doan entzuteko. Oraindik ez dut jarri deskargatzeko aukera, abestiak erregistratu gabe dauzkadalako, eta ez dudalako nahi norbaitek nire abestiekin dirua egitea. Baina nik nire musika doan eskainiko dut, eta dirua irabazteko kontzertuak eskaini beharko ditut. Canon digitalaren kontura bizitzea lotsagarria iruditzen zait. Imaginatu zure etxebizitza egin duen arkitektoak urtero zerga bat kobratzen dizula, autore eskubideengatik! Ez dauka zentzurik. Gainera, SGAE enpresa pribatua da. Diru hori, sikiera, kulturari inbertituko baltute, tira, baina ez dute horrelakorik egiten.

“Egiten dudanarekin gozatzea eta ondo pasatzea da nire helburua”

Imaginatzen al duzu zure burua kontzertuak ematen?

Momentu honetan apur bat arraroa gelditu litzateke. Imaginatu tipo bat eszenatorkira igo, ordenagailua piztu, mikrofonoa hartu eta abesten hasten dela. Txantxetan komentatu izan dut *Karaoke tour* estiloko zerbait egin beharko nukeela, baina ez dakit jendeak nola hartuko lukeen. Egunen batean kontzertu on bat ematea gustatuko litzaidake.

Zein estilotako musika egiten duzu?

Entzutea gustatzen zaidan musika egiten dut, batez ere. Dantza egitea ere gustatzen zaidanez, estilo horretako lanak egiten ditut. Baladak ere egin ditut, baina fondoan soinu nahasketa pila bat sartu dizkiet. Ahotsari ere oiazuna sartzen diot, nire ahots lehorra biguntzeko, eta baita ere gustatzen zaidalako.

Teknologia berriek erraztu dute musika egitea?

Bai, eta nire ustez ezin gara teknologia berrien kontra joan. Hor daude, eta eskaintzen dutena aprobeztatu behar dugu. Esate baterako, etxean inprimatu beharrean dokumentuak inprentara bidaltzeak ez dauka logikarik. Gaur egun ordenagailu batekin edozeinek edozer egin dezake, ideiak edukita, jakina. Nik sanplerra erabiltzen dut, oinarritzko eritmoak ezartzeko. Soinu pieza txikiak hartu eta elkarrekin nahasten ditut, soinu berriak gehitzen dizkiot eta ahotsa ere jartzen diot. Letrak ere neuk egiten ditut. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez abesten dut. Hizkuntza bakoitzak bere estiloa dauka abesteko, eta denak desberdinak dira.

Nola sortzen dituzu abestiak?

Gauzez egitea gustatzen zait, sekulako lasaitasuna egoten delako. Gauak oztupoak ere baditu: ezin izaten dut abestu, bizilagunak lo egoten direlako. Ordenagailua eta ni nahikoak gara abestiak egiteko. Kanpotik begira autista samarra naizela eman dezake, baina nik nire buruan ideia pila bat izaten ditut bueltaka. Musika pieza txikiak entzuten hasten naiz, eta bata bestearen atzetik etortzen zaizkit ideiak. Kanta batzuk berehala irteten zaizkit, eta beste batzuk izugarritzko lana ematen didate. Letrak egitea kostatzen zait gehien. Esan nahi dudana errazago adierazten dut musikarekin hitzekin baino. Nire espresatzeko modua da musika.

Zure musikarako zaletasuna aspalditik dator, 6nemen9 taldeko abeslaria zeu izan zinen.

Hori baino lehenago hasi nintzen musikan! 6 urterekin txistua jotzen hasi nintzen Ikastolan. Gero Udal txistulari taldean ere ibili nintzen, silbotea jotzen. Sanbartolomeetan parranda egin ondoren diana jotzea gogorra zen, baina bestela oso oroitzen onak ditut. Gero, 6nemen9 taldea sortu genuen, eta nik abesten nuen. Bost urte egin zituen taldeak, eta bi maketa eta diskoa kaleratu genituen. Euskadi Gazteako maketa lehieketa irabazi genuen, baina gero ez genuen diskorik atera. Orduan ere talde alternatiboa ginen, eta ez genuen diskoa grabatzeko eskaintzarik jaso. Bilboko Kafe Antzokitik deitu ziguten kontzertu bat emateko, baina ni Marokora joan nintzen. Dena utzi eta alde egin nuen. Hiru hilabete egin nituen Marokon, beste bat Madrilan eta gero Australiara joan nintzen. Garai polita izan zen. Itzuli nintzene-

an taldea deseginda zegoen, eta ordenagailua izan nuen lehenengo unetik hasi nintzen berriaz musika sortzen.

Musikaz gain, kulturako beste hainbat arlotan ere ibili zara. Antzerkia, komikigintza, arte ederrak... Esan daiteke kulturatik bizitzea lortu duzula ala zaletasun bat da zuretzako?

Zaletasun bezala hartu izan dut beti, eta akaso horregatik ez dut lortu lanbide egitea. Arte Ederrak ikasi nituen, ondo marrazten nuela esaten zidatelako, baina ikasketak ez ziren izan nik espero nuen. Ekekei antzerki taldeko esperientzia oso ona izan zen. Antzerki alternatiboa egiten genuen, eta aldarrikatzeko zeuden gaiak jorratzen genituen. Ez ginen zirkuito komertzialean sartu, eta antzerkigintza alternatiboarekin aurrera egitea zaila da. Eta Kokoen komikiak egiten genituen garaia ere polita izan zen. Pena da taldea desagertu izana. Nik segitzen dut marrazten. Komiki bat egiten ari naiz, baina oraindik elkarriketak idaztea falta zait.

“Esan nahi dudana errazago adierazten dut musikarekin hitzekin baino”

Nola definituko zenuke zure burua?

Definitu gabe nago oraindik. Artista hitza erabiltzea ez zait gustatzen. Gauzak sortzen ditut, beraz, sortzailea naizela esan daiteke. Ez zait gustatzen gauza berean denbora asko pasatzea, aspertu egiten naiz. Sortzea eta esperimentatzea gustatzen zait. Egiten dudanarekin gozatzea eta ondo pasatzea da nire helburua.

Zure hurrengo proiektuak?

Diseinu grafikoaren alorrean autonomo moduan lan egitea nahiko nuke. Baina musika ere hor dago eta norbaitek nahiko balu, enkarguzko musika ere egin ahal izango nuke.

Dirua aurrezteko, botika generikoak gehiago errezetatuko ditu Osakidetzak.

Botika generikoak ala markakoak dituzu nahiago?



Mariaje Arriola
61 urte, etxeoandrea

Berdin zait bata edo bestea hartu. Botika generikoak ere eraginkorrak direla uste dut, eta gainera, merkeagoak dira. Nik bi urte inguru daramatzat pilula generiko berbera hartzen, eta momentuz emaitza onak eman dizkit. Ondo begititzen zait Osakidetzak hartu duen neurria.



Mª Eugenia Arriola
49 urte, etxeoandrea

Ni fidatzen naiz botika generikoez, eta askotan erosten ditut. Parazetamola erosi izan dut, eta niri behintzat on egin izan dit. Ez dut arazorik izan, eta generikoak ere eraginkorrak direla uste dut. Dirua aurrezteko modu egokia da, beti ere, botikaren konposizioa berdina baldin bada.



Mª Dolores Garteiz
67 urte, etxeoandrea

Kolesterolaren kontrako pilula bakarrik hartzen dut, eta egia esanda, ez dakit markakoa ala generikoa den. Baina Osakidetzaren erabakia ondo iruditzen zait. Bi produktuak berdinak badira, merkearen alde egin behar da. Botika industria azkenean negozio hutsa da.



Ramon Aranburu
33 urte, Kutzako langilea

Ez dut botikarik hartzen, beraz, ez dakit zer esan. Baina dirua aurrezteko neurria baldin bada, eta botika generikoak eraginkorrek badira, ondo iruditzen zait. Botika industriaren atzean interes ekonomiko handiak daude, A gripearekin gertatu zena dugu horren adibide garbia.

HI, NORA HUA PIÑIK GABE!

PINak salgai 2€tan
(Lanbroa, Iriondo, Gabi, Ametsa,
Jai Alai eta Eizagirre okindegian)
(Bazkideek 1,5€tan Elgoibarko Izarran)



Jende askok espaloi gainean aparkatzen du autoa Ermuaranbide kalean: “Umeak Ikastolara eramateko orduan, bereziki, jende askok autoa espaloi gainean lagatzen du Ermuaranbide kalean. Espaloia handia da, eta badirudi autoek ez dutela trabarik egiten, baina ikusmena oztopatzen dute. Ingurune horretan garajeak daude, eta autoa garajetik ateratzeko zailtasunak izaten ditugu, gaizki aparkatutako auto horien ondorioz, ez dugulako ikusten Madala aldetik autoren bat datorren ala ez. Neurriak hartu behar dira istripuren bat gertatu aurretik”.



Madala inguruan ez dago kutxazain automatikorik: “Azkenaldian herriko erdigune bilakatzen ari da Madala ingurua. Ostalaritzako eta merkataritzako negozio asko dago ingurune hartan, eta jende asko ibiltzen da, batez ere, erosketak egiten. Baina ingurune horretan ez dago dirua ateratzeko kutxazain automatikorik, eta ondorioz, jendeak distantzia luzea egin behar izaten du dirua soinean duela. Hiritar askok ikusi dute kutxazainaren beharra dagoela”.



Txalo bat Galiza etxeari, Magosto eguna antolatzeagatik: “Giro polita egon da aurten ere Magosto egunean, eta antolatzaileek txalo bat merezi dute. Gaztaina pila bat banatu zituzten, eta ez zen inor geratu gaztainak probatu gabe. Krisi garaian gaztainak doan banatzea ikaragarri estimatzen dugu. Aurten, gainera, gaiteroek alaitu zuten eguna, eta eguraldiak ere lagundu zuenez, festa polita izan zela iruditzen zaigu”.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Udalak legea urratu du Lerun Txikin

Lortu dute Lerun Txiki baserriaren mendeetako egonaldia ixila hauts bihurtzea, hondeamakinaren hotsak birrinduta. Paretik kentzea zen helburua, paraje eder hori porlanez betetzeko. Auzitegian dagoen kasua izan arren, norbaitek bere burua jauntxo eta jabe sentitu eta kraus! ordagoa bota du. Hala ere, ez da joko zintzoa izan.

Kortako teilatuak zuloak zituela eta ingurua zatartzeaz gain erortzeko zorian zegoela-eta, baserria botatzeko baimena eskatu zuen Lerun Txiki Promociones y Contratas S.L.-k. Eta Udal arkitektoak eta Hirigintza Batzordeko lehendakariak onartu egin zuten, egia ez zela jakinda! Lerun Txikiko metro erdi pasako lodierako hormek ez zeukaten inolako arriskurik.

Hilak 8an, bost lagunek Udalari idatzi genion ebazpen horren inpugnazioa eskatzeko. Eraikinaren zati baten egoerak, hau da, kortarenak, ez ditu betetzen dorretxe osoaren aurre adierazpena eman ahal izateko legezko betekizunak. Ez horixe!

Udalak kobratu dituen 1.242,72 euroak izebergaren punta besterik ez dela suposatu daiteke. Eskaintako zerbitzuak ondo ordaintzen dira eraikuntza mundu uestelean, hain zuzen.

Guri kasu egin beharrean, presa handiagoa hartu zuten. Hilabete luzeak urik gabe egon ostean eta trasteak ateratzen amaitu gabe, bertan geratzen ziren bi bizilagunek alde egin behar izan zuten. Akabo hainbat gazteren bost urteko okupazioa. Eurentzat etxebizitza baino gehiago izan

da; aldiz, beste batzuen diru gosearentzat traba besterik ez. Eta izan zitekeen kulturarako leku aproposa, nekazaritza eskola bat ortuz inguratuta edo elkartearen topaleku...herriarentzat toki erabilgarria eta dotorea. Orain historia da, historia apurtua.

1.200 etxe berri, zazpi industrialde gehiago, baserriak eta lur emankorrak desagertu, paisaia guztiz itxuraldatu... batzuek amesten duten Elgoibarrek Marbella ematen du.

Okil Beltzak ☹

Ratzinger eta X galdua

Telebista: Ratzinger jauna eta bere hausnarketa sakon eta zentzuzkoak. Egunkaria: Arnaldo eta bere inguruan aspalditik dabilen auzia. Bien aurrean antzekoa da barrutik ateratzen zaidan sententzia: fikziozko pelikula baten aurrean nagoela.

Batak, antisorgailuaren erabilpena kaltegarria dela esaten duenean, hau da, milioika pertsonen heriotza aldarrikatzen duenean (Hiesa, gaixotasun benereok...), ideia libreak, proposamenak eta juzio moralak direla esaten zaigu, eta komunikabide guztiek "hori" erakusten digute.

Besteak, bere ideia libreak, proposamenak eta juzio moralak (konpartitu ditza kegunak edo ez) adierazten dituen, milioika pertsonaren heriotzaren aldarrikape-na egiten ari dela esaten digute, komunikabide guztietan "hori" erakutsiz.

Orain, alderatu dezagun "hori" erakuslea bi kasuetan; "X"-aren inkognita ez zaigu inoiz ondo ateratzen:

1- Milioika pertsonaren heriotza aldarrikatzea (zientifikoki frogatuta): Munduaren salbatzailea

2- Ideiak eta proposamenak adieraztea (gureak ez bezalakoak izan daitezke, baina interpretazioaren araberaok dira): X

Silogismo honekin ez dago hau ulerterrik, "X" hori bere balioakidearen "antipodetan" dagoelako.

Ziur nago gutako batek segurtasun uhalak, kotxeko aseguruak edo kaskoaren erabilera gure moralaren kontrako dela esango balu, barregarri geratuko litzatekeela bizi guztirako, baina honekin ikus daiteke zein garrantzia duen nork, zein errea barkatzen diogun boteretsuari, zein erraz kruzifikatzen dugun babesik gabe dagoena, zein gutxi aldatu den gure gizartea azken 2.000 urteotan, sorginen eta inkisidoreen garaiak ez zaizkigulako hain arrotzak egiten: demonizazioaren garaian bizi gara, baina "deabru" hori, hau da, X-a, beste toki batean zegoela pentsatzen nuen. Galdu egin zaigu.

A. I. ☹

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:




KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi | KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia | HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia | PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz | MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue | KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo.

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Maialen Arnedo

Jakin badakigu gaur egun gure hizkuntzak hezkuntzan duen egoera ez dela euskaldunok nahi bezain ona eta beharrezkoa litzatekeela egoera honi buelta ematea. Baina nondik hasi? zer egin?



Joanes Rodriguez

Kuriosoa da herri honetan hizkuntza eta hezkuntzaren artean egiten dugun lotura zuzena. Ulertzekoa inondik ere, guretzako euskara ez baita hizkuntza soil bat, lanabes huts bat... "Munduari begiratzeko modu bat, laguntzarrekin kantatzeko modu bat, (...), Ez onena agian, ez ederrera agian, zaharregia, txikiegia agian. Begietara begiratzeko modu bat, galderak egiteko modu bat, eskutik heltzeko modu bat, amets egiteko modu bat". Mikel Urdangarinek munduari begira esaten zuen, eta bere hitzak nere egin nahi izan ditut, gaur nire etikako irakaslearekin izan dugun jardun baten kontura. Garazi Kondek eta biok askotan izaten dugu Unibertsitatean gure hizkuntzaren babesean militante lana egiteko aukera, etikoki zuzena zer den erabakitzea eskatu digun arte. Ondorioa garbia da; Nola aterako dira gazteak euskara jakinda, erabiliz eta disfrutatuz, nagusiagoak eredu ez badira? Jakina da gazteenek eredu beharra izaten dutela... Eta gureak? Lerun Txiki baserria botatzea esaterako, herri mailako hezkuntza sail baten funtzionamendu/existentzia falta esaterako, arrazoi zehatzik gabeko herritar gazteen kartzelatzea esaterako, "benetako" frontoi bat...

Pasa den astean irakurri nuen artikulu batean, euskaraz ikastea eta hizkuntza gure komunikazio-tresna izatea Euskal Herrian bizi garen guztion eskubidea dela, guztiona. Eta noski, hori bermatzea hezkuntza-sistemaren betebeharra da. Hau kontuan izanik, derrigorrezko ikasketak bukatutakoan ikasle guztiok izan beharko genuke, edozein egoera-komunikatibotan euskara erabiltzeko gaitasuna. Hau esan, eta pentsatzen hasiko zara seguruenik, Joanes. Pentsatzen ea hau benetan gertatzen

“Zazpi probintzietan euskara ezagutu, ikasi eta erabiltzeko gai izatea denon eskubidea da”

den, ea Euskal Herriko ikasle guztiak benetan hizkuntza-gaitasun hau barneratzen duten ikasketak amaitu ordurako. Eta konturatuko zara ez dela horrela. Etorkinen kasuari erreparatzea besterik ez dago. Hauetariko asko, banatu egiten dituzte euskarari dagokionean daukaten hizkuntza-gaitasunaren arabera eta honek ez dio beraien integrazioari batere laguntzen. Zergatik? Euskara ezagutzeko aukera esku artetik kentzen dietelako. Lehenxeago aipatutakoa betetzea bada gure nahia, hizkuntz ereduak aldatu beharko genituzke eta etorkinak baztertuko ez dituztenak martxan jarri.

Nafarroako eta Iparraldeko egora ere ezin ahaztu. Euskal Herriko bi eremu hauetako hezkuntza sistema EAEn dagoenaren oso bestelakoa da, kaxkarragoa zorritzarez. Batzuei ez zaie axola, beste batzuek ordea, lanean dihardute, jo eta ke, beharrezkoa denaren alde borrokatzen. Izan ere, zazpi probintzietan euskara ezagutu, ikasi eta erabiltzeko gai izatea herritar guztion eskubidea da, eta ezinbestekoa da hau ahalbidetzea.

“Mundua aldatu nahi badugu, norberak bere burua aldatu behar du (M. Ghandi)”

Eredu izan behar direnek ez baldin badute jarrera eredugarriarekin predikatzen jai daukagu. Nelson Mandelak esan zuen hezkuntza dela mundua aldatzeko armarik boteretsuena eta arrazoia zeukan. Herri honek behar du hezkuntzan inbertitu, kalitatezko hezkuntza internazionalen, euskaraz egunon, ingelesez *Hil* eta txineraz *Xie Xie* rekin jarraituz, beti ere, eredu izanez, eta baloreetan heziz.


Mundua aldatu nahi badugu, norberak bere burua aldatu behar du, pauso txiki eta xumeekin, eraginez aldatuz, aldarrikatuz... Pentsatu prisarik gabe, ekin geratu gabe. Badaukazu nondik hasi, Maialen?



Elgoibarko Udala



Mendaroko Udala



Asmaola zabalduko dute Albitxuriko industrigunean, proiektu eta ideia berriak sortzeko fabrika

IMHK bultzatuko du egitasmoa, eta 2011ko bigarren erdialderako egongo da martxan

Asmaola zentro berritzailea sortzeko hitzarmena sinatu zuten Joan zen astean IMHK eta Kutxak. Industriaren berrikuntza sustatzeko egitasmoa da Asmaola, eta enpresa txikiei proiektu eta ideia berriak martxan jartzeko laguntza eskaintzea da helburua. Azken batean, enpresa txikiak ere merkatuan lehiakorrak izan daitezten egingo dute lan. Besteak beste, makina gutxiagorekin gauzak azkarrago eta hobeto egiteko prozesuak garatu nahi dituzte sustatzaileek. Egitasmo berritzailea da, eta orain arte merkatuan zegoen hutsunea beteko du, enpresa txiki eta ertainei prozesuak hobetzeko aukera eskainiz.

Albitxuriko industrigunean kokatuko dute enpresa berria, eta 2011ko bigarren erdialderako martxan jartzeko as-



moa azaldu dute. Egitasmo berritzaile honek 3,5 milioi euroko aurrekontua izango du, eta, Eusko Jaurlaritzaren, Kutxaren eta Foru Aldundiaren diru laguntza jasoko du.

Hitzarmenaren sinadura ekitaldian ondorengoek hartu zuten parte: Xabier

Garmendia Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia sailburuordeak, Xabier Iturbe Kutxako presidentea, Xabier Ortueta, AFM eta Invemako zuzendari nagusi eta IMHko presidentea, Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatea eta Jozean Egaña IMHko zuzendariak.

Arnaldo Otegiren aldeko kontzentrazioa egin zuten zapatuan



Arnaldo askatu, politika askatu plataformako kideek deituta, hainbat herritarrek bilkura berezia egin zuten joan den zapatuan, Plaza Handian. Arnaldo Otegi Espainiako Auzitegi Nazionalen epaitu dute, Anoetako ekitaldian "terrorismoa" goratu izana leporatuta. Epaiaketa salatzeko eta Batasuneko bozeramailea aske utz dezatela eskatzeko egin zuten elkarretaratzea. Bestalde, Otegiren aldeko argazki kanpainen parte hartu nahi duenak 8719600510 preso zenbakiarekin argazki bat atera eta [fearnaldootegi@hotmail.com](mailto:earnaldootegi@hotmail.com) helbidera bidali dezake. Arnaldo Otegi Zaragozako Zuera espetxera eraman dute.

Egitasmoa **Botikak hobeto erabiltzeko**



Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Botikarien Elkarteak etxex etxeko laguntza zerbitzuetan botikak hobeto erabiltzeko programa jarri dute martxan. Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak eta Angel Garai Botikarien Elkarteko presidentek sinatu zuten lan-kidetza hitzarmena astelehenean, eta Elgoibarkoarekin batera, 22 dira ekimen honetan parte hartzen duten udalerriak. Garaik esandakoaren arabera, programa berri honekin medikamentuen erabilera “optimizatu” nahi dute, eta, bide batez, “diru publiko mordoa aurreztu” ere bai.

Gizarte Ongizate Sailak 44 familiari eskaintzen die etxex etxeko zerbitzua, eta horetatik aukeratu dituzte programa honetan parte hartuko duten erabiltzaileak. Ondoren, botiken dosifikazio pertsonalizatua egingo zaie, dosia modu egokian hartzeko argibideak emanez. Egitasmoak Elgoibarko lau farmazien babesa jaso du.

Irudia **Lerun Txiki baserria bota dute**

Joan zen barixakuan, azaroaren 12an, bota zuten Lerun Txiki baserri okupatua. Jabearen eskariz bota dute baserria, “zahartuta eta erortzeko arriskuan” zegoelako. Okil Beltzak taldekoen arabera, kortako sabaian pare bat zulo zeuden, baina bestela, baserria egoera “onean” zegoela azaldu dute. Lerun Txikiko berdegunean 10.500 metro koadroko industrigunea egiteko proiektua dago, eta Okil Beltzak taldekoek diotenez, dirua irabaztea izan da baserria botatzeko helburu bakarra.



Ekintzaileentzako gunea **Gabriel Krutzelaegi kalean**

‘Ekin’, ekintzaileentzako gunea zabaldu du Udalak, jardueren sorrera, berrikuntza eta ekintzailetasuna sustatzeko. Pertsona ekintzaileei enpresa berriak kokatzeko gunea bat eskaintzea da egitasmoaren helburua. Egitasmoan parte hartu nahi dutenek jarduerari buruzko proiektua helarazi beharko diote Udalari, bi hilabeteko epean. Proiektu honen parte izan nahi duten ekintzaile guztiak lokal hori erabiltzeko arauak bete behar dituzte. Informazio gehiagorako Ekin gunera jo daiteke: Gabriel Krutzelaegi 10, behea.

Baserri auzoak eta **teknologia berriak**

Teknologia berriek baserri auzoetan duten kalitateari buruzko ikerketa egiten ari da Debemen. Internetarako konexioa eta telefono mugikorren kobertura aztertu nahi dituzte, bereziki. Hortaz, bi teknologia horiekin arazoak dituzten auzokideei ondorengo telefonoetako batera deitzeko eskatu die elkarteak. 943 744 067 (Debemen) 658 729 493 (Garbiñe).

Dependentzia dutenei **laguntzeko hitzaldia**

Altzolako Zubibai elkarteak dependentzia duten pertsonen laguntzeko jardunaldia antolatu du, Lahar elkargoarekin batera. Besteak beste, erakunde publikoek eskaintzen dituzten laguntzak azalduko dituzte. Hitzaldia datorren egunean izango da, 19:30ean, Karmen Plazako lekuan.

Familia konstelazioei **buruzko hitzaldia**

Eduardo Ibarria psikologoak familia konstelazioei buruzko hitzaldia eskainiko du datorren eguaztenean, 20:00etan, Kemen belardendean. Azaroaren 28an, berriz, tailerra egingo dute, gai bera lantzeko. Aldez aurretik izena ematea komeni da, 943 744 031 zenbakian.

Rocka, punka eta metala izango dira nagusi Danbakaren hirugarren emanaldian

Aurrera darrai Goienak antolatutako Danbaka musika lehiaketak, eta gaur gauean izango da hirugarren kontzertua. Lau taldek hartuko dute parte: Gipuzkoako hiruk eta Bizkaiko batek. Elgetako Espaloia kafe antzokian izango da saioa, 22:30etik aurrera. Sarrerak 3 euro balio ditu.

DOCTORS KLUB

Abadiño eta Durangoko Iraultzak, Jonkolek, Ehiarrek, Aritzek eta Urtzik osatzen dute Doctors Klub. Orain dela bi urteko udan elkartu ziren Aritz eta Urtzi lehenengoz Tabira parkean, inprobisatzeko asmoz. Bi abesti eginda zituztela, Iraultza batu zitzaizen erritmo psikodelikoekin baterian, eta Jonkol punteatze gitarran. Azkenik, Ehiar sartu zen taldera. 2009an euskaraz eta ingelesez abestutako zortzi kantu grabatu zituzten euren kontura lokalean.

ROMBOS NEGROS


Rombos Negros hirukotea 2004ko udaberrian sortu zen. Navak (gitarra eta ahotsa) eta Emborujok (bateria) jarri zuten proiektua martxan, Gasteizen. Handik hilabete gutxira, Bergarako Mikel (baxua) sartu zen. Punk-rock musika egiten dute eta gaztelaniaz abesten dute. Hirukote horrek ez du gaur egungo gizarte edo politikaz jarduten; bizitzan zehar pasatutakoekin egiten dituzte abestiak, eta horiei originaltasun ukietua ematen saiatzen dira.

KARPOVIAN PROJEKT

Rock-metal progresiboa egiten du Karpovian Projekt talde mutrikuarrak. Taldeko zenbait kidek elkarrekin aspalditik jotzen badute ere, 2008ko abuztura arte ez zen elkartu gaur egun taldea osatzen duen boskotea: hain justu ere, Beñat (ahotsa), Aner (gitarra), Iker (gitarra), Iñaki (baxua) eta Aymar (bateria). Euskaraz abesten duen talde horrek Mutrikuko Udalaren lokaletan entsetatzen du.

Ez!

Rock estiloko talde hori 2007. urteko irailean sortu zuen Oñatin, gazte talde batek. Honako hauek osatzen dute Ez! taldea: Lasa, Mikel, Beñat eta Josu. Lehenengo kontzertua Arrasateko Gure Leku tabernan eskaini zuen laukoteak, eta orduz geroztik hogeitaz kontzertu inguru eman ditu inguruko herrietan. Laster, Lorentzo Recordsera joango dira, Berrizko estudio-ra, Aitor Ariñorekin diskoa grabatzera.



BABESLE NAGUSTIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



www.danbaka.com

EZKONTZA 2010

AZAROKO GEHIGARRI BEREZIA



estetikaalire

Ordutegiak: Astatekoetik ostirakera: 09:30 - 12:30 / 15:00 - 20:00 - Astazakera: 09:30 - 19:00
Larunbata: 10:00 - 13:00 - Upaiz zaharra, 1. beheko - Tel: 943 531 636 - Elgoibar

TRATAMENDUAK:

- * Aurpegi eta gorputz tratamenduak (zelulitisaren aurkakoak, erreduktoreak)
- * Ongizate tratamenduak
- * Masajeak
- * Depilazio laserra, elektrikoa, argizarizkoa
- * Mikropigmentazioa
- * Manikura
- * Hantetako estetika
- * Solariuma
- * Medikuntza eta kirurgia estetikoak



GORPUTZEKO TRATAMENDUETAN
ETA FOTODEPILAZIOAN
ESPEZIALIZATUAK GAUDE.
ZATOZ KONTSULTA EGITERA.


EMAZTEGAIENTZAT BONO PERTSONALIZATUAK





JATETXEA

Loiolako Inazio
Hiribidea, 47
20730 AZPEITIA
Tel: 943 15 16 16
Faxa: 943 15 16 18
www.hotelloiola.com
E-posta: loiola@hotelloiola.com



Lore sortak

Emaztegiaren lore sortak ezkongaiak berak aukeratzea komeni da, eta hautu hori egiteko orduan bi gauza izan beharko ditu kontuan bereziki: lore sortaren tamaina eta bere jantzi edo soinekoaren estiloa.

Horrexegatik, ez dago arau jakirik lore sorta bat edo beste bat aukeratzeko orduan. Hala ere, eta gustuak adina lore sorta egin daitezkeela jakinda, egia da koloreetan behintzat badela nola-halako adostasun bat. Izan ere, kolore leunen alde egiten dute emaztegai gehienek: krema kolorea, salmoi kolorea eta zuria izaten dira ohikoenak. Garrantzitsuena zera da: lora jakin bat aukeratzea, eta lore horri ematea protagonismo osoa, eta ez hostoen berdeari. Doretasun naturala artile koloreko eta mendiko loreen bidez lortu daiteke.

Emaztegai alai eta jostalarietzako eta neguan ezkontzea erabakitzen dutenentzako, berriz, lore sorta informalak egokiagoak izan daitezke. Kolore biziko eta berde askoko lore sortak beste ukitu bat emango diote soinekoari, biziagoa.

Emaztegai klasikoan kasuan, berriz, bada lore bat ondo ezkontzen zaiena: orkidea. Krema koloreko orkideak, larrosa zuria eta akara zuria gomendatzen dituzte adituek.

Emaztegiaren altura bera kontuan hartzeko faktore bat da, lore sorta aukeratzeko orduan. Esate baterako, ez-



kongai txikiak lore sorta txikiagoa eraman beharko dute, lore sorta handiek protagonismoa kendu diezaieketelako. Aldiz, ezkongai handiagoei lore luzeagoak ere eraman ditzakete, arazorik gabe. Nolanahi ere, lore txikiak edo luzeagoak izan, lore sorta borobilduak nahiz luzexkak presta daitezke.

Ezkontza egunean irudia bera oso garrantzitsua bada ere, erosotasuna ere aintzat hartzeko kontua da, ezin dugulako emaztegia nazkatu. Ezkongaiak atzera eta aurrera ibili behar izaten dute, eta hortaz, erabiltzeko erraza izango den lore sortaren alde egin behar da beti. Zentzu horretan bouquet borobilduak oso aukera ona izan daitezke.

Edozelan ere, asko izan daitezke aukerak, eta horretarako, lore dendako profesionalekin hitz egitea aholkatzen dugu, zure estilora eta zure aurrekontura ondoen egokitzen den lore sorta aukeratu ahal izateko.





Loiola Hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tel.: 943 81 56 08
Faxa: 943 15 03 62



San Bartolome, 4
 Tel.: 943 744 048
 ELGOIBAR

JOSU bitxidenda

- Ⓞ Personalizatutako argazkiak
- Ⓞ Bataioak
- Ⓞ Ezkontzak
- Ⓞ Opariak
- Ⓞ Oroipenak
- Ⓞ Garaikurrak
- Ⓞ Ezkutuak






Eztei-bidaia, une desiratua

Ezkontza prestatzeak dakarren estresaren eta ezkontza eguneko zalaparta guztiaren ostean, ezkongai guztien momentu desiratua dator: eztei-bidaia.

Askorentzat eztei-bidaia izaten da bizitzan zehar egingo duten bidaia luzeena, eta baita, aldi berean, garrantzitsue-
na. Horregatik ondo prestatu beharreko bidaia izaten da.

Aukera zabala dago eztei-bidairako. Paraje zoragarriak daude munduan, eta zaila izaten da ezkongaiak lehenengoan ados jartzea, baina aukerak mila dira, eta beti izaten da haien gustuetara eta aurrekontura egokitzen den bidai-
ren bat.

Eztei-bidaien kasuan, normalena, eta askotan zentzuz-
koena, bidaia antolatzeko ardurua bidaia agentziako profesio-
nalen esku lagatzea izaten da. Dena ondo lotuta dago-
ela jakitea berme bat da, eta bidaiaz gehiago disfrutatze-
ko aukera emango digu.

Bietako inor egon ez den lekura joatea gomendatzen
dute adituek. Lehenengo eta behin, biak ados jartzea kome-
ni da, hori bai. Ezinbestekoa da gutako bakoitzak besteari
zer gustatzen zaion kontuan hartzea, modu horretan erraza-
go jarriko garelako ados.



 **Imprenta Arrillaga**

Inprimaketa: Offset
Digitalean

Ezkontza gonbidapenak
Hileta argiak
Bisita txartelak
Kartelak - etiketak
e.a.

Fotokopiak

Kaloretan
Txuri-beltzean

Trenbide Kalea, 13 - behea
Tel.: 943 74 01 87 e-posta: arrillagas@euskalnet.net

Olaia
estetika

EZKONTZA BONOAK DITUGU

- Garbiketak
- Makilajeak
- Aurpegi-tratamenduak
- Gorputz-tratamenduak
- Solariuma
- Masajeak
- Manikurak
- Depilazioak
- Laserra

LPG

San Inazio, 4 behea - Tel.: 943 74 27 25

www.fotojauja.com

EIBAR

ezkontza

2011

M. 688647344

HAIR'S
ILEAPAINDEGIA

San Bartolome, 6 behea
Tel.: 943 53 12 79

ASTEARTEETAN
JUBILATUEN
EGUNA:

- Orraztu 8 €
- Garbitu, moztu eta orraztu 16 €



Ezkongai gehienek uste dute hondartzak direla atsedena hartzeko lekurik egokienak. Itsas ondoko jate txerren batean afaldu eta ilunabarrean hondartzan zehar pasara bat emateko. Hala, askok uste dute Karibea dela eztei-bidaian joateko lekurik aproposena. Hondartza gustuko izan ez arren, Karibeak beste mila aukera eskaintzen ditu, hondartzak bezain lasaiak gainera: herri kolonialak, esate baterako.

Estatu Batuek ere primerako aukerak eskaintzen dituzte. Leku dibertigarriak eta interesgarriak oso: Boston, New Orleans, Orlando, Miami eta New York, besteak beste. Aurrekontuak aukera ematen badizu, berriz, hor dituzu: Argenti-

na, Txile eta Kanada, edota Asia eta Ozeania kontinenteak ere.

Eztei bidaian lasaitasuna bilatzen dute askok. Pentsatu beharrik gabe disfrutatzea, alegia. Zentzu horretan ez da gomendagarria denbora gutxian hiri asko ikustea. Erosotasuna eta lasaitasuna izan behar dira eztei-bidai on baten bi ezaugarri nagusiak, baina beti dago aukera lasaitasuna aldian aldiko kirol edo abentura ekintzekin osatzeko.

Nolanahi ere, gaur gaurkoz honako hauek dira ezkongai gehienek lekurik gustukoena: Kuba, Santo Domingo, Bali, Seychelles, eta Polinesia.



Jasone
Zerbitzu Grafikoa

- Lan komertzialak.
- Kartelgintza era guztietsako tamaina eta euskarrietan.
- Ezkontza gonbidapenak
- Gabon zorion-gutunak, egutegiak, etab.
- Inprimaketa digitala

San Bartolome, 15 - behea • 20870 ELGOIBAR - Gipuzkoa
Tel.: 943 53 17 45 • jasone@jasonesg.com • www.jasonesg.com

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189



GADIFOT ARGAZKILARITZA

Iñaki Galparsoro

Komentukoa, z/g.
Tel.: 943 170 671
Ermua (Bizkaia)

www.gadifot.es

Eztei-menuak

Ezkontza batean detaile txikiak ere zaindu behar dira. Ezkongaien erropak, ezkontza-ekitaldirako lekua, argazkiak non egin, jate-txea... baina bada kontu bat bizi garen leku honetan berebiziko garrantzia daukana: eztei-menua.

ONGI-ETORRIRAKO

Lehen ez zen oso ohikoa jatordua-
ren aurretik gonbidatuei zerbaitei eskaintzea. Orain, aldiz, ezkontza gehienetan izaten da bazkaldu edo afaldu aurreko mokadutxoak probatzeko aukera. Ezkongaien argazkiak egiten ari zaizkien bitartean ohikoa izaten da



gonbidatuei delicatesen bat eskaintzea, beti ere ardo on batekin batera.

Kanape arinak eskaintzen dira:

kroketa txikiak hasi eta gazta, salmoi edo kabiarrezko tartaleta txikiak arte, aukera asko daude.



HASIERAKO ETA MARISKOA

Sasoi batean, zizka-mizkak edo entremes aukera zabal batekin hasten zen jatordua. Orain, aldiz, erreze-ta landuagoen alde egiten dute askok: onddoz betetako alberjiniak gainerreta, esparrago tartaletak, perretxikoz eta hirugiharrez betetako hojaldeak, adibidez. Era berean, mariskoa oso gutxitan falta izaten da eztei-menuetan. Plantxan erretako langostinoak eta zigalak, esate baterako, aukera ona dira.



NAVA
INPRIMATEGIA

Santa Ana, 44 - ☒ 208
Telf. eta Faxa: 943 744 451
E-mail: nava@euskalnet.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

*Etorri
eta
aukeratu.*



OKELA, SORBETEA ETA ARRAINA

Zizka-mizken atzetik, eta haragia edo arraina eskaini aurretik, kontsome edo zopa izaten dira normalean aukeran, gehienetan xanpain sorbetearekin lagunduta.

Arrainetan aukera handia dago: lupia, legatza, zapoa, erreboiloa, mihi-arraina... Okeletan ere aukera zabala dago, eta geografiak zeresan handia izaten du bata edo beste aukeratzeko orduan.



AZKEN GINDA

Askori zaila egiten zaie oraindik eztei-tartarik gabeko bazkari bat ulertzea, baina badira eztei-tarta gustuko ez duten bikoteak ere, eta halakoetan, beti dago ordezko postre landu bat aukeratzeko ere. Ordez-

ko postre horrek, baina, badu gutxitan huts egiten duen osagai bat: izozkia.

Eztei-menu asko eta askotarikoak daude. Jende askok uste du ezkontzetan jateko asko egotea ezinbeste-

koa dela, baina hori baino garrantzitsuagoa izaten da mahaira ateratzen diren jakiak kalitatezkoak izatea, eta baita, aldi berean, aurkezpena zaintzea. Ez ahaztu, begiak ere gozatu behar direla halakoetan.

AZALEA *Edergintza*
M^a Carmen Bereziartua
 Trenbide Kalea, 3 zia. behea - 20870 ELGOIBAR
 Tel.: 943 74 03 10
 Helbidea: San Roka, 5 - 3. A - 20870 ELGOIBAR
GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA
 Depilazioa (laserra, elektrikoa eta argiztatzea) - Mikropigmentazioa

AGURTZANE
c.b.
ileapaindegia
FOTODEPILAZIOA
 Santa Ana, 18 - 20870 Elgoibar - Tel.: 943 741 864

DEBAPE
INPRIMATEGIA
komunikazio grafikoa
 • DISEINU GRAFIKOA • OFFSET LITOGRAFIA • FOTOKONPOSIZIOA
 • PUBLIZITATE DISEINUA • ERA GUZTETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK
 Sigma Ind., Xixilion 2, 2. (7.lokala) • Tel.:943 74 40 58
 • Faxa: 943 74 41 78 • debape@debape.com • www.debape.com

ARAMBURU
BITXIDENDA
 San Frantzisko, 26
 Tel./faxes: 943 74 25 35

JOSE ANTONIO

ILEAPAINDEGIA

Errosario, 30
Tel: 943 741 492

ELENA

ILEAPAINDEGIA - DEPILAZIO ELEKTRIKOA

San Frantzisko, 49-1 - Tel: 943 741 189

Tximak

ILEAPAINDEGIA
solariuma

Kalamua, 2 · Tel: 943 744 357

HAIR'S

ILEAPAINDEGIA

San Bartolome, 6 behe
Tel: 617 988 130

Maria Urizar

Ileapaindegia - Solariuma

Errosario, 9-1 · Tel. 943 744 489

AGURTZANE

Ileapaindegia - Fotodepilazioa

Santa Ana, 18 · Tel. 943 741 864



*Euskal arkitekturako eraikin
nagusienetakoan, ezkontzak berezia
izan behar duelako*



**Joseba
JATETXEA**
FLOREAGA Jauregia

Aizkibel, 10 · AZKOITIA

Tel. 943 85 34 12

e-posta: josebajatetxea@hotmail.com

www.josebajatetxea.com



*XVI. mendeko jauregi gotikoan, paregabeko paisaia batean,
gaur egungo joerei erreparatzen dien kalitatezko euskal sukaldaritza
klasikoaz gozatzeko aukera ematen dute*

250 lagunentzako jantokia,
ospakizun handietarako aproposa.
Bestetik, bi jantoki: 80 lagunentzako
bata, eta bestea erreserbatua, 20
lagunentzat. Luntxa egiteko terraza
aproposa.

**TERRAZA HANDIA
DANTZARAKO
ETA KOKTELETARAKO**

**EZKONGAIENTZAKO ARRETA
PERTSONALIZATUA,
JAKUZZIDUN SUITTE-A
ETA AITABITXI, AMABITXI ETA
GAINERAKO SENIDEEI HARRERA
EGITEKO EGONGELA PRIBATUA**



Krabelin
HOTELA-JATETXEA

Tel: 943 202 727 - Faxes: 943 208 991
Arrate auzoa, z/g
20600 EIBAR (Gipuzkoa)



Erretratu zaharra



Mendaron konpondu berri duten Santa Isabel ermita parean ateratako argazkia duzue hau. Gogora ditzagun argazkiak agertzen direnak zeintzuk diren. **Goian, ezkerretik eskuinera:** Juanita Ulazia, Pako Arrizabalaga, Jesusa Iriondo, Maria Dolores Zezeaga, Ana Mari Zabaleta, Javier Urruzola (†), Maria Isabel Lazarobaster, Pedro Olazabal (†), Mertxe Muguruza eta Maria Angeles Urain. **Behean, makurtuta:** Felix Arrizabalaga, Belen Ansola, Ignacia Iriondo, Eugenio Osoro (†) eta Atanasio Olazabal.

I. URTEURRENA

PAULE KONDE ISASI-ISASMENDI

2009ko azaroaren 21ean hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, azaroaren 21ean, goizeko 11:30ean Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



MIREN FERNANDEZ

Abeslaria

Miren Fernandez (Azpeitia, 1977) abeslariak *Laztanten nauen eskua* bere estraineko diskoa aurkeztuko du bihar, 22:00etan Mendaroko San Agustin kurturgunean emango duen kontzertuan. Euskal Telebistan egin zen ezaguna Fernandez, eta azkeneko urteotan telebistako saio bat baino gehiagotan ibili ostean, kantu propioekin dator orain, "sentimentuetatik sortutako musikarekin". Informazio gehiagorako: www.mirenfernandez.com.

“Kontzertu goxoa izango da Mendaron eskainiko duguna, testuinguru lasai batean entzutekoa”

Telebistan ezagutu zintugun, Euskal Telebistako *Aire-aire* saioan, eta ordutik han-hemen ikusi zaitugu, beste abeslari batzuen bertsioak abesten.

Bai, saio askotan aritu naiz, eta telebistari esker ezagutzen nau jende askok. *Aire-Airen* hasi nintzen, baina telebistan egin ditudan gauza guztietatik esperientzia aberasgarriena *Izar bila* lehiaketa izan da. Telebistakoek animatuta eman nuen izena bertsioak edota norberak sortutako kantak abesteko aukera eskaintzen zuen lehiaketa hartan, eta finalera iritsi nintzen *Xalbadorren heriotza* kantarekin. Mari Fe Nogalesek irabazi zuen lehiaketa hura, eta ni finalisten artean gelditu nintzen. Lehiaketa hark, hala ere, *Sorginen Laratza* saioko atea zabaldu zidan. Bost urtez jardun nuen gero han, astero-astero euskal kantak abesten. *Oh Happy Day* etorri zen gero. Bi urte egin ditut *Oh Happy Day*-ko epaimahaian.

Nola baloratzen dituzu telebistan egindako urteak?

Oso ondo. Oso esperientzia aberasgarria izan da telebistan lan egitea, zentzu guztietan gainera. Askok zor diot telebistari.

Beste abeslarien bertsioak kantatzen zenituen telebistan. Noiz erabaki zenuen bertsioak egiteari laga eta zeure kantuak sortzen hastea?

Beti ibili naiz saltseatzen, pianoa lagun hartuta, baina nik uste dut *Sorginen Laratza*n nengoen bitartean piztu zitzaidala harra. Musikarako zaletasuna ume-umetatik datorkit, hala ere. Zazpigarren mailara arte ikasi nuen nik pianoa. Bosgarren edo seigarren mailatik aurrera asko ikasi beharra dago, obra klasikoak-eta. Gogoan daukat ama errietan aritzen zitzaidala beti, obra klasiko horiek ikasi beharrean Xabier Leteren, Benito Lertxundiaren eta abarren kantak abesten pasatzen nuelako denbora. Beti izan dut besteen kantak pianoan ateratzeko erraztasun hori, eta hortik hasi nintzen neure abestiak sortzen, 23 urterekin baka-

rrik bizitzera joan nintzenez batez ere. Bakarrik bizi nintzenez, egunean zehar gertatzen zitzaizkidan kanporatzeko modu bat zen niretzat pianoaren ondoan jarri eta kantak sortzea.

Labetik atera berri duzu zeure lehenengo lana: ‘Laztanten nauen eskua’, 11 abestiz osatutako diskoa. Zer kantatzen diozu diskoan?

Oso disko intimista dela esango nuke. Sentimentuetatik sortutako musika da, nire esperientzietatik egindakoa. Izenburuan, eskua hitza sartu nahi nuen, ‘eskua’ kanta askotan agertzen delako. ‘Laztanten’ ere behar zuen, diska hau jende askoren eskuetatik pasa delako; askok laztandu dutelako. Hala, kanta baten izenburua jartzea erabaki genuen, eta nik uste dut izenburu ezin egokiagoa dela, gainera.

Kolaboratzaile zerrenda luzea izan duzu zure lehenengo lan honetan.

Bai, bai. Zortekoa naiz. Jende ona daukat inguruan, eta aurpegia ere jarri diot, gainera. Diskoko kantetako baten letra da nirea. Gainerakoak, Andoni Egaña, Xabier Euzkitze, Asier Serrano eta Pako Aristik egindakoak dira. Hori letreri dagokionean, baina musikari talde handi batek ere kolaboratu du diskoan: Bixente Martinez, Ander Ederra, Joanes Ederra, Igor Gartzia, Andoni Lertxundi eta David Gorospek.

Disko intimista dela diozu. Mendaroko San Agustin kurturgunea antzoki bildua da, eta ez du leku txarra ematen zure diskoa aurkezteko. Non aritzen zara zu gusturuen kantuan?

Ez dut antzokia bera ezagutzen, baina leku bildua bada, ziur naiz disfrutatuko dugula, eta entzuleek ere gozatuko dutela. Plazetan ere aritu naiz, festetan-eta, baina nahiago dut antzoki batean kantatu. Diskoko kantuak eta beste batzuk aurkeztuko ditugu Mendaron, eta saiatuko gara jendea gozarazten. Kontzertu goxoa izango da, testuinguru lasai batean entzutekoa. Formatua, berriz, hauxe izango da: kontrabaxua, pianoa, esku soina, eta ahotsa.

Tzesne & Paralux taldearen kontzertuak hasiko du gaur gauean Sotoko Hotsak musika jaialdia

“Musika proposamen arriskutsuen” erakusleihu bihurtuko dute Kultur Etxeko sotoa

Gaur gauean hasiko da Sotoko Hotsak, “musika berezien jaialdia”. Elgoibarko Sinuose kultur elkarteak antolatzen du jaialdi hau, eta aurtengoa seigarren edizioa du. Aurreko urteetan bezala, “Euskal Herriko proposamen interesgarri eta arriskutsuen erakusleihu” bihurtuko dute gaurtik Kultur Etxeko sotoa. Aurten hiru kontzertu antolatu dituzte, eta hiru eurotan jarri dituzte salgai sarrerak.

Tzesne & Paralux taldeak hasiko du gaur jaialdia, 22:30ean. Antolatzailleen arabera, Tzesne Euskal Herriko underground eszenako aztoratzaile nagusienetako bat da, eta free-rock, noise industrial eta edo minimalismo elektronikoa bezalako estiloetara zabaldu du bere musika ibilbidea. Paralux, berriz, abstrakzioa eta irudi konkretuak erabiliz Tzesneren soinua “modu bikainean” ilustratzeko gai den bideo-artista da.

Azaroaren 25ean, berriz, Osoko Bilkura taldearen txanda izango da. Oier Etxeberriak eta Arrak osatzen dute taldea, Akauzazte talde azkoitiarreko gitarra jole eta bateria jole ohiek, eta inprobisazioan oinarritutako lana eskainiko dute Elgoibarren. 22:00etan hasiko da kontzertua.

Gaur zortzi, berriz, azaroaren 26an, Fernalia taldearen kontzertua izango da. Bi lagunek osatzen dute taldea, “euskal eszena arriskatuenetako banda esanguratsuetan” aritutako bi lagunek. Jatorri industrial duen taldea da berez, baina hala ere, genero horretako gainerako taldeekin alderatuta, Fernaliak ez dio uko egiten melodiari. Izan ere, taldearen dinamika “melodiaren eta basakeriaren, edertasunaren eta indarkeriaren, isiltasunaren eta zarataren arteko talkaren ondorioz sortutako tentsioan oinarritzen da”, Sotoko Hotsak jaialdiaren antolatzailleen arabera. 22:30ean hasiko da Fernaliaren kontzertua.



Anjel Bazterretxea abadea omendu dute Mutrikuko eta Mendaroko abesbatzek



Anjel Bazterretxearen omenezko meza egin zuten domekan Mendaroko Trinitate elizan, eta elizkizunean Mendaroko eta Mutrikuko parrokia-abesbatzek eta Mutrikuko Santa Katalina konbentuko abesbatzek parte hartu zuten. Anjel Bazterretxeak 50 urte bete ditu abadetzan, eta herriaren alde egindako lana eskertu nahi izan diote Mendaron. 1960ko ekainaren 29an egin zen abade Bazterretxea, eta urte bereko uztailearen 22an eman zuen bere lehenengo meza, Mutrikun, bere jaioterrian. 1962tik Mendaroko parrokoa da.

Generoaren inguruko ikastaroa antolatu dute Mendaron, egunerako

Mendaroko Udaleko Berdintasun Sailak generoaren gaineko ikastaroa antolatu du ostegunerako. Bi orduko ikastaroa izango da, eta herriko elkarte eta norbanako guztiak gonbidatu dituzte. Ikastaroa udaletxean bertan izango da, azaroaren 25ean, 17:00etatik 19:00etara. Egun berean, 19:30ean, Niki Carok zuzendutako *En tierra de hombres* filma emango dute, San Agustin kulturgunean.

Haurrentzako ‘Hala bazan’ antzerkia, liburutegian, azaroaren 24an

Haurrentzako *Hala bazan* antzezlanak ikusteko aukera izango da eguaztenean, azaroaren 24an, liburutegian, 17:00etan. Kutxako Gizarte Ekintzak antolatutako ekitaldia izango da.

Herriko musikariek Santa Zeziliaren omenezko ekitaldiak antolatu dituzte datozen egunetarako

Gaurtik astelehenera bitartean musika izango da protagonista

Azaroaren 22an Santa Zezilia eguna dela-eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte herriko musikariek datozen egunetarako. Gaur arratsaldean hasiko dira ekitaldiak. Musika eskolak antolatuta, trikitilariak kalejira egingo dute 18:30ean hasita. Ondoren, 19:30ean, Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute, auditorioan. Ekitaldi horretan, ikasturteko diplomak banatuko dituzte.

Udal Musika Banda

Udal Musika Bandak, bestalde, bihar hasiko ditu Santa Zeziliaren omenezko ospakizunak. Iluntzeko 19:00etan bandako hildakoei eskainitako meza izango da San Bartolome parrokian. Domekan,



Ikastolako umeek astelehenean egingo dute kalejira.

berriz, kalejira egingo dute 10:15ean, eta 12:30ean kontzertua emango dute Herriko Antzokian (egitaraua agendan).

Azkenik, astelehenean, Ikastolako

ikasleak kalejiran irtengo dira. Goizean Plaza Handitik Ikastolaraino joango dira, eta, arratsaldean, alderantzizko bidea egingo dute.

Galiza Etxeak 300 kilo gaztaina banatu zituen zapatuan, Magosto Egunean



Magosto Eguna antolatu zuen Galiza Etxeak joan zen zapatuan. Nafarroa Plazan jarri zuten gaztainak erretzeko danbolina, eta eguerdi aldean hasi ziren gaztainak banatzen. Guztira, 300 kilo banatu zituzten, eta nahi zuenak Ribeiro ardoa dastatzeko aukera ere izan zuen, edalontzia bi euro ordainduta. Herritar asko batu zen Magosto festan, eta Galiziako ohiko produktuak dastatzeko aukera ere izan zuten. Aurten, berrikuntza modura, gaiteroen emanaldia izan zen, eta Eibartik etorritako Os Galaicos taldeak girotu zuen eguna. Eguraldiak lagundu zuen, eta giro polita egon zen gaztainaren omenezko festan.

Gure Bide elkartearen 50 urteko ibilbidea jasotzen duen liburua aurkeztuko dute gaur

Gure Bide elkarteak liburu batean jasotzen du 50 urteko ibilbidea, eta gaur egingo dute aurkezpena, 20:00etan, udaletxeko pleneroan. Koldo Lizarralde eta Laurentzi Gorostizak idatzi dute liburua, eta proiektuak Udalaren, Bidelanen, Kutxaren eta Aldundiaren laguntza jaso du. Aurkezpen ekitaldian hainbat txirridularik hartuko dute parte, eta moderatzaile lanak Arritxu Iribar Euskadi Irratiko kazetariak egingo ditu. Besteak beste, Amets Txurruka, Beñat Urain, Alberto Leanizbarutia, Unai Osa eta Iñigo Lariz etorriko dira. Aurkezpenaren ondoren, Gure Bide elkartearen batuko dira afaltzeko.



Hamahiru mendaroar eta 74 elgoibartar Behobia-Donostian

Noiz baino jende gehiagok parte hartu du aurten Behobia-Donostia herri lasterketan. 17.437 lagun irten ziren, eta horietatik 17.373k osatu zuten ibilbide osoa -63 lagun erretiratu egin ziren, eta beste bat, 40 urteko gizonezko bat, helmugatik kilometro batera hil zen, bihotzekoak jota-. Lasterketa amaitu zutenen artean hamahiru mendaroar eta 74 elgoibartar daude. Gure ordezkarien artean, Jose Antonio Ruiz izan zen azkarrena, 1:09:43 denborarekin. Lehen emakumea, berriz, Maite Maiora izan zen. Parte hartu zuten emakumeen artean seigarren denborarik onena egin zuen mendaroarrak: 1:20:42. Igor Elizburuk, bestalde, zortzigarren egin zuen gurgildun aulkidunen artean.

ELGOIBARTAR ETA MENDAROARREN SAILKAPENA

Izen-abizenak	Denbora	Izen-abizenak	Denbora
1. Jose Antonio Ruiz	01:09:43	57. Aitor Etxeberria Perez	01:41:57
2. Roberto Gonzalez Fernandez	01:12:30	58. Javier Hernando Albert	01:42:11
3. Iñaki Gil Onaindia	01:14:36	59. Carlos Ayesta Arruza	01:42:11
4. Iñigo Iturbe Ortiz de Zarate	01:16:31	60. Ramon Ugarte Olaetxea	01:42:54
5. Asier Arrieta Vallejo	01:17:49	61. Ainara Sanchez San Martin	01:43:28
6. Gotzon Zulaika Arakistain	01:18:04	62. Jose Ignacio Ortiz de Urbina	01:44:36
7. Iñigo Salegi Aldabe	01:18:13	63. Eduardo Armendia Azaldegi	01:44:39
8. Danel Fernandez de Jauregi	01:18:54	64. Jorge Elkoroiribe Intxausti	01:44:39
9. Miguel Angel Urkiza Anakabe	01:19:02	65. Roberto Mangana Miguel	01:44:51
10. David Soto Fernandez	01:20:26	66. Sebas Etxaniz Alkorta	01:45:45
11. Iñigo Lariz Azkue	01:20:42	67. Joxean Gurrutxaga Iriondo	01:46:08
12. Maite Maiora Elizondo	01:20:42	68. Luis Maria Arriola	01:46:15
13. Zigor Azkoaga Urkidi	01:21:52	69. Gurutz Quintano Agirrezabal	01:46:32
14. Garikoitz Muñoz Blazquez	01:22:27	70. Ana Casquero Gonzalez	01:46:41
15. Igor Elizburu Astigarraga (handbike)	01:22:27	71. Juan Mari Mendizabal	01:46:46
16. Luis Anakabe Plaza	01:23:24	72. Iban Eizagirre Anton	01:46:51
17. Mikel Agullo Ruano	01:23:46	73. Manuel Arrillaga Ibarluzea	01:47:50
18. Oier Irazabal Garciañdia	01:24:33	74. Joseba Sanchez Garcia	01:48:18
19. Alberto Arberas Agirrebeña	01:24:39	75. Ainara Ladron Urbieto	01:49:05
20. Asier Arzamendi Mujika	01:24:43	76. Imanol Iparragirre Arretxea	01:49:06
21. Angel Eguren Belaustegi	01:24:50	77. Arnaldo Otegi Mondragon	01:49:07
22. Jurdan Ezenarro Arriola	01:25:33	78. Maria Jesus Izagirre Izagirre	01:49:08
23. Anton Mendizabal Etxaniz	01:25:39	79. Patxi Arberas Soldan	01:49:08
24. Tomas Azpeleta Iturricastillo	01:27:39	80. Daniel Lopez Husillos	01:52:40
25. Bruno Guerrero Labanda	01:27:46	81. Ion Perez Arizmendi	01:52:56
26. Jose Cruz Guillo Manresa	01:27:59	82. Miguel de Sol	01:53:47
27. Carlos Garcia Fernandez	01:28:08	83. Iosu Zubiaurre Jauregi	01:56:11
28. Igor Ezenarro Arriola	01:28:11	84. Julen Irizar Mantzizidor	01:57:27
29. Santamaria Fernandez	01:28:35	85. Mikel Ibañez Oteiza	01:57:27
30. Manu Rey Fernandez	01:28:37	86. Maria Lourdes Beneitez Ruano	02:01:50
31. Josu Orbea Ostolaza	01:28:59	87. Pablo Jesus Quintano Eleta	02:01:51
32. Ainhoa Lendinez Garate	01:29:14		
33. Ibon Villanueva Altuna	01:30:25		
34. Jon Mendikute Arriola	01:31:47		
35. Fernando Calvo Minchinela	01:31:57		
36. Josu Iriondo Elorza	01:32:47		
37. Joseba Jurado Merino	01:33:18		
38. Imanol Calleja Etxaniz	01:33:24		
39. Pilar Arriola Diez	01:33:29		
40. Hector Garrido Diez	01:34:29		
41. Gotzon Gurrutxaga Bengoetxea	01:34:59		
42. Berex Ortiz Ardanza	01:34:59		
43. Nerea Lendinez Garate	01:35:12		
44. Joseba Manzano Igual	01:36:12		
45. Lourdes San Martin Andonegi	01:37:16		
46. Guillermo Ezenarro Iso	01:37:28		
47. Gorka Sastre Osoro	01:39:18		
48. Iñigo Iparragirre Torres	01:39:22		
49. Jabi Guallar Perez	01:39:22		
50. Jose Ramon Cabello Olmo	01:39:25		
51. Aitor Treviño Goikuria	01:39:40		
52. Joseba Sagasta Anton	01:39:49		
53. Alberto Seijas Casado	01:39:50		
54. Javier Agirrebeña Larrañaga	01:40:17		
55. Jon Iñaki Ferreira Taborcia	01:40:58		
56. Miguel Angel Montes Crespo	01:41:15		



Pilar Arriola, domekan, Zurriolara iristen.

Elkartea irekiagoa egiteko ideiak landu dituzte Morkaikoren gogoeta saioan

Idea guztiak landu eta Gabon bueltan aurkeztuko dituzte



Elkartearen gaineko hausnarketa saioa deitu zuen zapaturako Morkaikoko zuzendaritzak, eta berrogei bat lagun elkartu ziren Sallobente-Ermuarango Azaola baserrian, elkartearen gaur egungo izatearen inguruan hitz egin eta elkarteak hartu beharko lukeen bidea aztertzeko. Lehenengo aldia da Morkaikok era horretako gogoeta saio bat antolatzen duela, eta zuzendaritzakoek balorazio “oso positiboa” egin dute. “Jende gazte asko etorri zen, eta Pako Iriondo Morkaikoko bazkide fundatzaileetako bat izandakoa ere gurekin izan genuen egun osoan, guretzako ohore bat izan zena. Talde txikietan batuta jardun genuen lanean, eta oso ideia interesgarriak irten ziren. Jendea lanerako gogoz etorri zen, eta eskertzekoa da”, azaldu du Ion Urbietak Morkaikoko zuzendaritza taldeko kideak.

Antolatzen dituzten irteeretara jende berria erakartzeko dituzten zailtasunei buruz hitz egin zuten zapatuan, eta elkarte “irekiagoa” egiteko bideak landu zituzten, besteak beste. Horri lotuta, elkarte herritarren interes eta beharretara egokitu eta berriro beharrez ere jardun zuten, eta espezializazioaren bidean sakontzeko beharra zegoela ondorioztatu zuten, besteak beste.

Zapatukoa hasiera baino ez zen izan, ordea. Han irtendako ideia guztiak batu, landu eta Gabonak bueltarako prozesu horren emaitzak publiko egitea aurreikusitako zuzendaritzak. Tarte horretan, bazkide eta herritarren proposamenak batzen jardungo du. “Zabal-zabalik gaude”, dio Ion Urbietak. Morkaikorekin harremanetan jartzeko bideak: *morkaiko@morkaiko.net* eta 943 740 297 (Bulego ordutegia: Astelehen eta ostegunetan, 19:00etatik 20:30etara).

Joaquin Escudero Olaso atleta hil da, 85 urterekin

Joaquin Escudero Olaso atleta hil da. Escudero donostiarra zen jaiotzez, baina lotura berezia izan du beti Elgoibarrekin, eta bereziki Juan Mugerzaren omenezko krosarekin. Hiru aldiz irabazi zuen krosa: 1944an, 1946an eta 1959an, eta urtero etortzen zen ikustera. Azkeneko urteetan gainera, antolatzaleen aldamenean izan da beti, “ahal zuen guztian laguntzeko prest”, Zigor Diez Mintxeta Atletismo taldeko ardurdunak **BARRENI** jakinarazi dionez.



EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Santutxu 0 (3. maila)
 Mutriku 1 – Elgoibar 2 (Reg. preferente)
 Lagun Onak 1 – Elgoibar 5 (Ohorezko jub.)
 Elgoibar 3 – Urki 1 (1. kad. A)
 Eibartarrak 3 – Elgoibar 3 (1. kad. B)
 Aurrera Ondarroa 2 – Elgoibar 0 (Ohorezko inf.)
 Elgoibar 2 – Bergara 1 (Infantil txiki)
 Ilinxta 2 – Elgoibar 5 (Alebinak)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
 Lagunak 10 – Intxurre 22 (1. mailako jubentak)
 Lagunak 22 – Urnieta 4 (3. mailako kadeteak)

ARETO FUTBOLA

Euskalduna 1 – Concepto Createch 6 (1. mailan)
 Cafeteria King Kong 7 – Inter Intxaurren 3 (Jub.)

ESKUBALOIA

Alkorta Forging Group. 32 – Ordizia 28 (Sen. mut.)
 Beristain Elgoibar. 27 – J.D. Arrate 38 (Jub. mut.)
 Hotel Txarriduna 31 – Usurbil K.E. 25 (Kad. mut.)
 IMH 32 – Bartolo Jatetxea K.E. 25 (Kad. nes.)
 J.D. Arrate A 26 – Bankoa 18 (Inf. mut.)
 J.D. Arrate C 10 – Aterpe. 14 (Inf. mut.)
 Legazpi 20 – Federopticos Ikus 11 (Inf. nes.)
 Casa Astigarraga 25 – Aloñamendi C 4 (Inf. nes.)
 Muskiz 23 – Tecnifuelle 27 (Sen. nes.) Euskal Liga
 Autobuses Juanjo 14 – Grupo Eibar Sanjo 29 (Jub. nes.) Euskal Liga
 CB. Kukullaga 18 – Lauko Elgoibar 30 (Kad. nes.) Euskal Liga

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domekia, 21
 16:00 Concepto Createch – Ceramicas Nogales

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 20
 12:00 Elgoibar – Eibar (Kadeteak, B)
 15:30 Elgoibar – Aretxabeleta (Reg. Preferente)
 17:30 Elgoibar – Amaikak Bat (Jub. Ohorezkoak)
Domekia, 21

9:30 Aretxabeleta – Bergara
 10:30 Eibar – Aloña Mendi
 10:30 Arrasate – Zumaia
 11:30 Amaikak Bat-Mutriku – Ilinxta
 11:30 Elgoibar – Lagun Onak (Alebinak)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 20
 12:00 Bankoa – Arrate C (Inf. mut.)
 18:00 Tecnifuelle – Kukullaga (Sen. nes.)
Domekia, 21

10:15 Aterpe – Aloña Mendi (Inf. mut.)
 11:30 Ikus – Arrate Amaña B (Inf. nes.)

PILOTA

Barbakua, 19
 21:15 Lagunak – Ziotza (2. mailako kadeteak)
 22:00 Lagunak – Zestoa (3. mailako nag.)
 22:30 Lagunak – Añorga (3. mailako nag.) PALA

LANA

ESKAERA

• Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Orduka.

☎ 648 603 029

• Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Edozein ordutan.

☎ 678 972 690

• Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko.

☎ 673 875 123

• Ikasle gaztea asteburuetan lan egiteko prest: ostalaritzan edo umei ikasten laguntzen.

☎ 608 686 814

• Gizon gaztea txofer lanak egiteko prest. 3.500 kilora arteko ibilgailuak gidatzeko baimena.

☎ 650 538 274

ESKAITZA

• Asteburuetarako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea baloratuko da.

☎ 669 977 225

• Zerbitzaria eta sukaldari laguntzailea behar dira.

☎ 943 743 196

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

• Etxea hartuko nuke alokairuan.

☎ 606 612 834

• Benidorm-en apartamentua alokatzen da. Erdigunean, eroso.

☎ 943 740 628

• Etxea salgai Santa Ana kalean. Altzariekin, berritua, eta eguzkitsua. Igogailuarekin eta bizitzera sartzeko moduan. 130.000 euro.

☎ 943 742 131 (20:00etatik aurrera)

• Pisua salgai Santa Klaran. 96m² eta dena kanpoaldera begira. Ganbara eta igogailua.

☎ 664 585 369

AUTOAK ETA GARAJEAK

• Autoa salgai. Opel Astra automatikoa. Bi urte eta erdi ditu. Merke, aukera bikaina. ☎ 619 127 474

• Garajea alokatzen da Pista Beltzaren azpian. Autoa garbitzeko aukera eskaintzen du, garbigailua dauka. Oso merke. ☎ 679 843 332

• Garajeak alokatzen dira Jausoron, Udaletxearen aldamenean.

☎ 672 422 237

PARTIKULARRAK

• LHko eta DBHko klase partikularrak ematen ditut, etxeetan. Elgoibarren eta Mendaron.

☎ 606 257 620

• Gaztelania eta matematika eskolak emango nituzke. Talde txikiak. Esperientzia daukat.

☎ 943 744 206

BESTELAKOAK

• Umearen txamarra beltza galdu dut, kiroldegia eta Basarte artean. Norbaitek aurkitu badu, utzi dezala Udaltzaingoa.

BARRENen aldeko BONOAK erosteko:

- BARREN astekarian (Nafarroa plaza)
- Elgoibarko Izarran (Ubitarte 4)
- E-postaz eta telefonoz:

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com



Bonoa erosten duten guztien artean, Belaustegi jatetxean bi lagunentzako dastatze-menua zozketatuko dugu

BARRENen aldeko bonoak saltzeko prest al zaude? Deitu edo idatzi Elgoibarko Izarrara eta benetan estimatuko dizugu. Eskerrik asko!

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



Ni ere banaiz
BARREN!



• Zorionak, **Julia!** Abu Dhabyko zirkuituan ikustea espero dugu! Jairo.



• Zorionak zure 9. urtebetetzean, **Zorionel** Baita zuri ere, osaba Bittor. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Ane**, astelehenean 10 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, gurasoen eta ahizpa Noraren partez.



• Zorionak, **Haritz**, azaroaren 14an 9 urte egin zenituelako. Gurasoen eta Nagore eta Julen lagunren partez.



• Urte bat bete duzu, printzesa! Zorionak, **Olatz**. Gurasoen eta bereziki Aitorren partez.



• Zorionak, **Befiat**, astelehenean 3 urte egingo dituzulako! Muxu asko eta bersarkada handi bat denon partez, txapeldun!



Azkenean 5 urte! Zorionak mutil handi, etxeko guztien eta, bereziki Ane eta Mikelen partez.



• Zorionak **Ane Kortaberriri** astelehenean 9 urte bete zituelako. Nora eta gurasoen partez, maitasunez.




• 2 ume x 2 urte = 1.000 zorion. Etxeko guztien partez, zorionak, **Miren eta Maite**.




• Zorionak, **Aitor eta Elenel** Etxeko printsezak dagoeneko 2 urte eta printzeak... Muxu handi bat bixori eta ondo ondo pasa zuen urtebetetze eguna. Familiakoen partez.



• Zorionak gure etxeko printzesa txikiari, zorionak beti. Maite-maite zaitugu, **Nahia**.



• Patxi eta Maria Luisak azaroaren 18an urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Zorionak, **bikote!** Ondo pasat! Mutriku, Elgoibar eta Zarauzkoen partetik.



• **Sebas eta Arantxa** ezkondu ziren Villabonako kartzelan. Zorionak Elgoibarko Ezker Abertzalearen partez.

Erretratu bakarrekog agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.
 Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.
 BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edobarren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

LUDOTEKAKO EKINTZAK



- BARIXAKUA 19**
Jolas kooperatiboak 17:00
- ASTELEHENA 22**
Gorputz espresioa 17:00
- MARTITZENA 23**
Buztin tailerra 17:30
- EGUAZTENA 24**
Non dago Ludo? 17:30
- EGUENA 25**
Buztin tailerra

GAZTELEKUKO EKINTZAK



- BARIXAKUA 19**
Wii 17:00
- ZAPATUA 20**
Zinema 17:00
- DOMEKA 21**
Ping-pong txapelketa 17:00
- MARTITZENA 23**
Eskulanak 17:00
- EGUAZTENA 24**
Txoko pribatua 17:00
- EGUENA 25**
Sukalde txokoa 17:00

OKINDEGIA

14 domeka **IBARRENEA**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 19 Garitaonandia- Bidasolo
- 20 Etxeberria (Santa Ana)
- 21 Etxeberria (Santa Ana)
- 22 Fernandez
- 23 Yudego
- 24 Fernandez
- 25 Etxeberria (Errosario)
- 26 Ibañez

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBARREN.net



19 barixakua

Musika

18:30 Trikitilarien kalejira

Inazio Bereziartua musika eskolako trikitilarien kalejira.

Musika

19:30 Kontzertua

Santa Zezilia egunaren harira, kontzertua eskainiko dute musika eskolako ikasleek. Ekitaldian bertan ikasturteko diplomak banatuko dituzte, Musika eskolako auditorioan.

Bertsolaritza

21:00 Bertso afaria

“Ganorazko frontoi bat” aldarrikatzeko, bertso afaria antolatu du 10bai taldeak. Basarte elkartearen batuko dira. Bertsolariak: Aitzol Barandiaran, Uxue Alberdi eta Mikel Olaizola. 19:00etan triki-poteoa Baltzola anaiekin, Plaza Handian hasita.

Musika

22:30 Sotoko Hotsak

Sinuosek antolatuta, Tzesne & Paralux taldearen kontzertua, Sotoko Hotsak egitasmoaren barruan. Kultur Etxeko sotoan.

20 zapatua

Kirola

11:00 Karakateko igoera

Morkaikok antolatuta, Plaza Handitik irtengo dira partaideak.

21 domeka

Kirola

10:00 Mendi irteera

Santa Engrazira egingo dute irteera Ikastolako ikasleek, irakasleek eta gurasoek. Elgoibarko Ikastolatik abiatuko dira.

Musika

12:30 Santa Zezilia kontzertua

Udal Musika Bandak Santa Zezilia kontzertua eskainiko du, Herriko Antzokian. Abesti batean, Duo Plaentxi taldeak ere parte hartuko du. Goizean, kalejira egingo dute. Kontzertuko egitaraua:
1. *Embrujo de Ana*, pasodoblea. (R. Domenech).
2. *Sedona*, obertura. (S. Reineke).
3. *Mari Celi*. Polka. (F. Corto).
4. *Los madroños de la gran vía*, fantasia. (F. Chueca).
5. *En mi viejo San Juan*, Duo Plaentxi taldearekin. (I- Urkizu).

22 astelehena

Musika

8:30 Ikastolako ikasleen kalejira

Plaza Handitik Ikastolaraino joango dira goizean eta arratsaldean kontrako ibilbidea egingo dute.

Tailerra

17:00 Arte tailerra

Haizeak antolatuta, liburutegian.

23 martitzena

Tailerra

17:00 Literatura tailerra

Haizeak antolatuta, liburutegian.

Bilera

19:00 Kontsumo taldea

Elgoibarko kontsumo taldea sortzeko bigarren bilera egingo dute Kultur Etxean.

24 eguaztena

Antzerkia

17:00 ‘Hala bazan’

Umeentzako antzerkia, liburutegian.

Tailerra

20:00 Familia konstelazioak

Eduardo Ibarria psikologoak eskainiko du hitzaldia Kemen belardendan.

«**Todo lo que tú quieras**»

- 19, barixakua: 22:15
- 20, zapatua: 22:15
- 21, domeka: 19:00
- 22, astelehena: 21:30

«**The karate kid**»

21 domeka: 16:30

«**Mujeres del Cairo**»

(Ongarri zine-kluba)
25, eguena: 21:00

Arrate Gaina, 4
279 Postakutxa
20600 EIBAR
943 121 262
943 127 334

KANTABRIA Jatetxea

*Edozein
ospakizunetarako
aukera*



www.kantabriajatetxea.com

**EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK**

ARRATEKO
SANTLITEGIAREN
ondoan aurkitzen gara

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak,
zilarrezko ezkontzak, urrezko ezkontzak,
karta, enpresa bazkariak...

RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA.JATETXEA



MONUMENTU ARTISTIKOA



LASA JATETXEA



*250 LAGUNENDAKO
JANGELA*

*ERA GUZTIETAKO BANKETEAK
ospatzeko toki bikain batean*



Ozaeta Jauregia
Tel. 943 76 10 55
Faxa: 943 76 20 29
www.restaurantelasa.com
BERGARA

